

DEJABU PANPIN LABORATEGIAk aurkezten du:

# aZKEN pOrTua

**Aktoreak:** Urko Redondo eta Ainara Gurrutxaga


**Musikaria:** Ander Fernandez

**Zuzendaritza:** Dejabu

**Iraupena:** 50 minutu

**Adina:** 4 urtetik gorakoentzat

*Txotxongiloak , aktoreak eta zuzeneko musikarekin eginiko antzezlan berezia haurrentzat .*



## SINOPSISIA



Didi eta Gogo dira Azken Portuko biztanle bakarrak, eta denbora luzea da ez dutela barkurik ikusi itsaso zabaletik portura iristen. Gogo zaharrak ez du jada egun hura gogoratzen.

Dena den, Didi gaztearen jakinminak Gogoren oroimenetan murgiltzera eramango gaitu, Euskal Herriko arrantzaleen garaiak, Enbata barkuaren azken bidaia eta Krixpin gaztearen abentura zoragarriak bizituko ditugu.


## PROPOSAMENA

Azken portua ikuskizunarekin Dejabu konpainiak urrats berri bat eman du txotxongilo eta objektuen antzerkiaren ildotik.


Haurrentzako antzezlan honetan itsasorako bidaia proposatzen zaio ikusleari, abenturaz eta laguntasunez zipriztindutako istorioetan barrena.

Arrantzale zaharrek kontatzen zituzten istorio haietan bezala, pentsatu arazi, hunkitu eta barre egin arazten diguten istorioak dira. Garai bateko bizimodua erakusten diguten pasarteak.

Zuzeneko musika memoriarako bidaia berezi honetako narratzaile bilakatuko da. Gonbidatuta zaude!



## BEHAR TEKNIKOAK



### ESPAZIOA:

6m x 4m eszenategia gutxienez  
Atzeko teloi beltza

### SOINUA:

Soinu irteera bat eszenategi gaineratik, ezker aldean.  
Soinu ekipoa (etapa, bafleak)  
Argindar sarrera

### ARGIAK

DMX irteera eszenategiaren gainean, ezker aldean.

RIDERa antzokiaren arabera zehaztuko da


## KONPAINIA

Dejabu 2001.eko arratsalde batean sortu genuen Ainara Gurrutxagak eta Urko Redondok (gu gara horiek). Sortzeko askatasuna emango zigun antzerki bat egin nahi genuen, mundu berriak imaginatu eta deskubritzeko aukera emango zigun teatroa. London, Paris eta Kracovian egin genituen ikasketak.

Itzuleran, energiaren betea, lanean murgildu ginen buru-belarri ezagutu genituen hainbat lengoiairekin esperimentatuz, dela antzerki fisikoa, txotxongiloak, maskarak... eta beharrezkoa zen guztia.

Helduentzako sortutako azken lanak, Covek nire ptica-Gizona ez da txoriak, hainbat sari eskuratu ditu: Zuzendaritza onena Pragako World Puppet Art Festivalen, aktore onenarena Subotica Theatre Festivalen eta obra onenaren saria ACT Bilboko sortzaile berrien jaialdian.

Azken portuarekin bide beretik jarraitu nahi dugu: antzerki-lengoaia berriak ikertzen eta hunkitu, pentsa arazten eta ondo pasa arazten duen antzerkia sortzen.



## KONPAINIAREN IBILBIDEA

**2010. Errautsak.** Artedrama eta Le Petit theatre de pain taldeekin batera sortutako antzezlanak.

**2010. Azken portua.**

**2008 Covek nije ptica- Gizona ez da txoriaren estreinaldia.**

**2005 Ikara**

**2004 Zabor ontzia.** Errenteriako musika elkartearekin sortutako ikuskizuna.

**2002 Zein polita den Panama.** Txotxongilo ikuskizuan haurrentzat.

**Ekoizpen eta sormena**

**dejabu**

panpin laborategia

[www.dejabu.org](http://www.dejabu.org)

[info@dejabu.org](mailto:info@dejabu.org)

(+34) 665 71 55 58

(+34) 675 00 66 80

**Banaketa**

**ARTEDRAMA**

Arte eszenikoen  
plataforma

Xabino Alkorta

(+0034) 615779511

[info@artedrama.com](mailto:info@artedrama.com)

[www.artedrama.com](http://www.artedrama.com)

